

2018-2019



**IRAKURKETA PLANA**

**ELIZATXO IKASTOLA HLHI**

# AURKIBIDEA

## 1. SARRERA

### 1.1. Diagnostikoa

### 1.2. Ikastetxearen ibilbidea

## 2. JARDUERA-ARDATZAK

## 3. HELBURUAK

## 4. JARDUERAK

## 5. EGINDAKO JARDUEREN EBALUAZIOA

## 6. ERANSKINAK

## 1. SARRERA

Irakurketa plana, ikastetxeko dokumentu erabilgarri eta irekia izatea nahi dugu. Irakurketa, lehenetsuneko lan-ardatza da, irakasgai eta ikastetxeko ekimen guztietan dagoen jarduera da eta. Beraz, ikasleek eraginkortasunez irakurri, ikasi, eskola arrakasta izan eta bakarrik zein elkarrekin gozatzeko aukera izan dezaten, ikastetxea irakurketaren kultura murgilduko da.

Erantzunkidetasunez aritzeko, eskolaratze ibilbidean ikasleen irakurketa konpetentzia garatzeko irakasleriaren formazioari aparteko garrantzia ematea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Plan hau gauzatzeko, ikastetxean jadanik egiten ziren jarduerak berrikusi eta horien inguruko hausnarketa taldeka egin ostean eta Diagnostiko-ebaluazioan aztertutako konpetentzien emaitzen hobetzea izan ditugu hizpide.

Ikastetxeko beste planak bezala, hau ere eskuragarria eta ebaluagarria izateko diseinatua dago. Irakurketa Plana, Ikastetxearen Hizkuntza Planari (IHP) atxikitzen zaion dokumentua da.

### 1.1 Diagnostikoa

Irakurketa-praktiken analisirako lan-tresna zikloetan aztertu eta balorazioa egin eta gero, indar-guneak eta ahuleziak hauteman ditugu. Ikastetxean, irakurketaren inguruan orain arte egindako ekintzak hamaika izan dira. Horien artean, irakasleriak aurre-irakurketan (ahozkotasuna) jasotako formazioak eragina izan du, beraien arteko barne hausnarketak eta adostasunetan indartsu egotea.

Aldiz, beste honako ataletan hobetu beharrak ditugu:

- Eskola-liburutegiaren erabilpen baxua: irakurtzen ikasteko programatutako jardueretarako eta ikas jarduerak egiteko eta irakurzaletasuna bultzatzeko.
- Familien parte hartzea eskasa.

*Diagnosi lan-tresna ikus eranskinetan.*

## 1.2 Ikastetxearen ibilbidea

Elizatxo Ikastolako ibilbidea kontutan hartuta, 2016-2017 ikasturteko Kanpo ebaluazioan gure ikasleek izandako emaitzei erreparatuz gero, Hobekuntza Planean irakurketaren ulermenari lotutako jarduerak garatu eta ebaluatu behar genituela erreparatu genion. Beraz, aurtengo ikasturtean horretan aritu gara.

Bestalde, Ikastetxeko ibilbidea kontutan hartuta, honako hauek aipatuko ditugu:

- Irakasleriaren ahozkotasanari buruzko formazioa bi ikasturteetan (2013-2015)
- 2. eta 3. ziklokoek, tertulia dialogokoak egiten dituzte, elkarrekin irakurritakoak sortzen dizkigun zalantzak, sentipenak, iritziak... konpartitzeak daukan garrantziaz jabetuz.
- Idazleak ikastetxean: ikasleen irakurketarekiko interesari eusteko ohikoa bilakatu da gurean.
- Herriko erakundeen eskutik: curriculumeko konpetentziak ipuinen bidez eskuratzea, hala nola; bertako kultura, landaretza eta animalien bizimodua erakusten diguten komikiak, haurren sormena pizteko, gozatzekoak, atzerriko hizkuntzan idatzitakoak eta Udaleko Berdintasun Sailaren eskutik, Kultu-aniztasuna eta Parekidetasunaz aritzea 1. Ziklokoak.
- Liburuaren egunean antolatzen ditugun ekintzak, ikasleen arteko bizikidetzaren sustatu eta curriculumean zeharkako konpetentziak lantzeko aukera izaten dugu

lazio ikasturtean diagnosiari ekin genion eta aurren, 2018-2019 ikasturtean Irakurketa Plana idatzi dugu.

Irakasleriak jasotako formazioari dagokionez, gogoeta egiteko **irakurzaletasunaren** eremutik hasia erabaki genuen, lanari ekiteko pizgarria den eremua iruditzen zitzaigulako. Ikasturtean zehar, Berritzeguneko aholkularien eskutik, formazio saio bana izan dugu, **Irakurtzen ikasi** eta **Ikasteko irakurri** eremuak bereizteko.

Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua (IHP) garatzeko asmoz, hiru hizkuntzetan: euskara, gaztelera eta ingeleraz irakurtzeko zaletasuna garatzeari ekin diogu jarduerak hiru hizkuntzan diseinatuz.

Bestalde, Hizkuntza Normalizazio Proiektuak (HNP) urteetako ibilbidea dauka gure ikastetxean. Ikasleen artean euskara bultzatu eta haren erabilera sustatzeko ekintzak, jarduerak eta etengabeko balorazioa egiten dugu ikasturtero. Proiektu honen barruan, liburutegia euskarazko liburuekin hornitzea eta euskal idazleen presentzia ikastetxean baloratzen dugu.

Aparteko garrantzia eman zaio, jangela garaian LHko ikasle guztientzat. **Liburutegia** irekita izateari, Ikastetxeko Guraso Elkartearen ardurapean dagoen jarduera da.

## 2. JARDUERA-ARDATZAK

Diagnostikoaren emaitzetan oinarrituta eta ikastetxeko premia nagusiak zein diren detektatuta ondoren, hiru jardun-ardatz hauekin lotutako ekintzak burutu ditugu:

1. Irakurtzen ikasi: Irakurtzen ikastea irakurtzeko gaitasunak garatzea da, irakurketaren oinarritzko trebetasun funtzionalak eskuratzera iristea. Irakurketarako ezinbestekoa da, alde batetik, hitza antzematea (deskodetzea) eta, bestetik, esanahia identifikatzea (ulertzea).
2. Ikasteko irakurri: irakurmena. Ikasteko eta ezagutza garatzeko, funtsezko baliabidea da irakurketa, bai eskola barruan, bai eskolatik kanpo ere.
3. Irakurzaletasuna: Era askotako testuak gero eta modu autonomoagoan eta askotariko helburuekin irakurtzeko ohitura sustatzea da irakurzaletasunaren xedea. Ikasleak irakurtzeko plazerean hezteko asmoz.

### **3. HELBURUAK**

#### **1. IRAKURTZEN IKASI**

- 1.1 Irakasleak formatzea “irakurtzen ikasi” eremuan.
- 1.2 Zikloetan irakasleek estrategiak aztertzea eta adostea ...
- 1.3 Adostutako estrategiak eta jarduerak ezartzea edo martxan jartzea.

#### **2. IKASTEKO IRAKURRI**

- 2.1 Irakasleek formazioa jasotzea “ikasteko irakurri” eremuan.
- 2.2 Irakurketa jarduerak (teknikak eta estrategiak) adostea ikasteko irakurri eremua lantzeko.
- 2.3 Adostu eta aukeratutako estrategiak eguneroko jardunean txertatzea.
- 2.4 Liburutegia eraldatzea, materialak egokitzea ... informazio bilaketa egiteko gunea bilakatuz.

#### **3. IRAKURZALETASUNA GARATU**

- 3.1 Irakurzaletasunari buruzko ekintzak, aztertu eta berriak aukeratzea.
- 3.2 Diagnostikoa orokorrean egitea, liburutegiko garbiketa, espurgoa, berrantolaketa ...
- 3.3 Formazioa irakurzaletasunaren inguruan egitea
- 3.4 Familiei orientazioa ematea, haurrek irakurtzeko ohitura har dezaten.
- 3.5 Inguruneak eskaintzen baliabideak baliatzea, edonolako testuak irakurtzera bultzatzeko.
- 3.6 Liburutegiaren erabilera eta mailegua sistematizatzea.

### **4. JARDUERAK**

# 1. IRAKURTZEN IKASI

## 1.1 Irakasleak formatzea “irakurtzen ikasi” eremuan.

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
“Irakurtzen ikasi”-ari buruz hausnarketa egiteko formazio saio 1	2018-2019 apirila	Berritzeguneko arduraduna	Hitzaldia, materiala ...	- Formazio Saioa burutu da. - Klaustro osoak parte hartu du
“Irakurtzen ikasi”-ari buruz formazioa saioa ( 2 ordu)	2019-2020 iraila	Berritzeguneko arduraduna	Hitzaldia, materiala ...	- Formazio saioa burutu da. - Klaustro osoak parte hartu du
Barne formazioa “Irakurtzen Ikasi” ingurukoa (1.5 ordu)	2019-2020 Kurtso hasiera	Irakurketa Planeko arduraduna Zikloetako koordinatzaileak	Artikuluak, webguneak, hitzaldien bideoak ...	- Formazio saioa burutu da- - Klaustro osoak parte hartu du
Gelan egiten diren jardueren inguruko hausnarketa	2018-2019 apirila 2019-2020 irailean eta kurtsoan zehar	Irakasleak	Ziklo bakoitzeko txantiloia	– Hausnarketa egin eta ondorioak atera dira. – Txantiloia bete da.

## 1.2 Zikloka irakasleek estrategiak aztertzea eta adostea.

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
“Irakurtzen ikasi” lantzeko estrategiak zerrendatu saio batean (proposamenak, materialak ... )	2019-2020 Iraila-urria eta kurtsoan zehar	Irakurketa Planaren arduraduna Irakasleak	Artikuluak, liburuak, materiala ...	Estrategia anitzak zerrendatu dira.
“Irakurtzen Ikasi” lantzeko jarduerak adostu eta prestatu	2019-2020 Iraila-urria Ikasturte hasieran eta kurtsoan zehar	Irakasleak	Txantiloia Aztertutako estrategien zerrenda	Ikasleekin lantzeko jarduerak aukeratu dira

## 1.3 Adostutako estrategiak eta jarduerak ezartzea edo martxan jartzea.

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Gelan “Irakurtzen Ikasi” eremua lantzeko aukeratutako estrategiak martxan jarri	2019-2020 ikasturtearen zehar	Irakasleak	Aukeratutako jarduerak eta estrategiak	Estrategiak eta jarduerak gelan aplikatu dira



## 2.IKASTEKO IRAKURRI

### 2.1 Irakasleek formazioa jasotzea “ikasteko irakurri” eremuan

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
“Ikasteko irakurri”ri buruz formazio saioa (2 ordu)	2019-2020 Iraila	Berritzeguneko aholkularia	Hitzaldia	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Formazioa jaso dugu.</li> <li>– Klaustro osoak parte hartu du</li> </ul>
“ Ikasteko Irakurri” eremua lantzeko egiten diren jardueren hausnarketa eta jasoketa egin (saio 1)	2018-2019 Apirila	Berritzeguneko aholkularia	Hitzaldia Jardueren zerrenda	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Formazioa jaso dugu</li> <li>– Klaustro osoak parte hartu du</li> </ul>
Barne formazioa “Ikasteko irakurri” ingurukoa (1.5 ordu)	2019-2020 Ikasturte hasieran	Irakurketa planeko arduraduna Zikloetako koordinatzaileak	Artikuluak, webguneak, hitzaldietako bideoak ...	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Barne formazioa burutu da.</li> <li>– Klaustro osoak parte hartu du</li> </ul>

## 2.2 Irakurketa jarduerak (teknikak eta estrategiak) adostea ikasteko irakurri eremua lantzeko

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Jarduera berrien informazioa bilatu eta aztertu	2019-2020 Iraila - urria Ikasturte hasieran eta kurtsoan zehar	Irakasleak	Txantiloia Formazioa saioetan jasotakoa, testuak, webguneak, liburuak ...	Jarduera eta estrategia berrien zerrenda egingo da.
Jarduera berrien proposamena egin, zehaztu eta jarduerak prestatu eta idatzi gelan lantzeko	2019-2020 Iraila - urria Ikasturte hasieran eta kurtsoan zehar	Irakasleak	Jarduera eta estrategien zerrenda	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Jarduera eta estrategiak zehaztu dira</li> <li>– Gelan aurrera eramango diren estrategiak eta jarduerak idatziz jasotzen dira.</li> </ul>

### 2.3 Adostutako estrategiak eguneroko jardunean txertatzea

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Aukeratutako jarduerak egunerokoan txertatu	2019-2020 Iraila – urria eta ikasturtearen zehar	Irakasleak	Adostutako jarduerak eta estrategiak	Estrategiak eta jarduerak aplikatu dira

### 2.4 Liburutegia eraldatzea, materialak egokitzea ... informazio bilaketa egiteko gunea bilakatuz.

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Liburutegian ikasleek informazio bilaketa egiteko gunea antolatu	2019-2020 ikasturte hasieran	Liburutegiko arduraduna	Altzariak, ordenagailua, etiketak, txartelak ...	Informazioa bilatzeko gunea jarri da.

### 3.IRAKURZALETASUNA

#### 3.1 Irakurzaletasunari buruzko ekintzak, aztertu eta berriak aukeratzea.

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Irakasleak bildu eta irakurzaletasuna bultzatzeko egiten diren jarduerak aztertu	2018-2019 Otsaila	Irakurketa Planaren arduraduna Zikloetako koordinatzailea	Txantiloia	Irakurzaletasuna bultzatzeko egiten diren jardueren zerrenda egin da. Irakurzaletasuna bultzatzeko egiten diren jarduerak aztertu dira.
Irakasleak bildu eta jarduera berriak proposatu eta aztertu	2018-2019 Martxoa	Zikloko koordinatzailea	Txantiloia	Jarduera berrien zerrenda egin da. Jarduera berrien aurkezpena, azalpena eta proposamena egin da, lankideen aurrean.
Irakasleek irakurzaletasuna	2018-2019 Martxoa – apirila	Irakurketa Planaren arduraduna	Txantiloia	Irakurzaletasuna bultzatzeko jarduerak

bultzatzeko jarduerak aukeratu eta martxan jarri	2019-2020	Zikloko koordinatzailea		aukeratu dira zerrendatik. Aukeratutako jarduerak gelan egiten hasi dira
--	-----------	-------------------------	--	---

### 3.2 Diagnostikoa orokorrean egitea, liburutegiko garbiketa, espurgoa, berrantolaketa ...

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Liburutegiko liburuen espurgoa egin	2018-2019 Urtarrila	Liburutegiko arduraduna	Liburuak Kutzak	Baliagarriak ez diren liburuak baztertu dira (puskatuak, zaharrak...)
Liburutegiko mobiliarioaren berrantolaketa egin	2018-2019 urtarrila - otsaila 2019-2020	Zuzendaritza Liburutegiko arduraduna	Altzariak	Apalategian kokapena aldatu da eta mahaien antolaketa ere. Mahaien berrantolaketa egin da. Soberan zeuden altzariak erretiratu dira.

Liburutegiko apalategitan atalak eta azpiatalak (kartelak) ezarri. Liburutegiko antolaketa egin.	2018-2019 Otsaila	Liburutegiko arduraduna	Kartelak	Liburutegiko apalategietan kartelak jarri dira.
--	-------------------	-------------------------	----------	---

### 3.3 Formazioa irakurzaletasunaren inguruan egitea

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
"Irakurzaletasunari buruzko formazioa 3 saioak	2018-2019 Iraila 4 saio	Irakurketa planeko arduraduna Galtzagorri Elkarte Zuzendaritza	lpuinak, web orrialdeak,	– Klaustro osoak , 3 orduko, 3 saioko formazioa jaso du
Irakurzaletasunari buruzko artikuluen irakurketa	2018-2019 martxo	Irakurketa planeko arduraduna	Berritzegunetik bidalitako artikulak	– Artikulua irakurri da.

### 3.4 Familiei orientazioa ematea, hurrek irakurtzeko ohitura har dezaten.

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Familiantzako jarduera gomendagarrien zerrenda osatu (jarduerak, materialak...)	2018-2019 ekaina 2019-2020	Zikloko koordinatzaileak Irakurketa planeko arduraduna Liburutegiko arduraduna	Baliabide digitalak Katalogoak Liburu en zerrendak Dekalogoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Jarduera gomendagarrien zerrenda osatu da</li> <li>– Familiei zerrenda eta dekalogoak banatu zaie.</li> </ul>

### 3.5 Inguruneak eskaintzen dituen baliabidez baliatzea, edonolako testuak irakurtzera bultzatzeko.

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Inguruan dauden baliabideen zerrenda osatu	2019-2020 Ikasturte hasieran eta kurtsoan zehar	Zikloko koordinatzaileak Irakurketa planeko arduraduna Liburutegiko arduraduna	Udal liburutegien informazioa, liburuak, web guneak, elkarten informazioa ...	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Inguruan dauden baliabideen zerrenda osatu.</li> <li>– Irakasleei eta familiei inguruko baliabideen</li> </ul>

				zerrenda eman zaie (gurasoei web gunean eskura jarri zaie)
--	--	--	--	---

### 3.6 Liburutegiaren erabilera eta mailegua sistematizatzea.

JARDUERAK	DENBORA	ARDURADUNA	BALIABIDEAK	EBALUAZIOA
Liburutegiko berrantolaketa	2018-2019 urtarrila-otsaila 2019-2020	Liburutegiko arduraduna	Abies 2.0 programa Apalategiak, ohialak, aulkiak	Liburutegian moldaketak eta aldaketak egin dira: altzariak, egituraketa..
Liburutegiko liburuaren katalogazioa	2019-2020	Liburutegiko arduraduna Irakasle talde bat	Abies 2.0 programa Kode irakurlea, dimoa	Liburutegiko liburuak katalogatu dira.
Liburutegia erabiltzeko protokoloa egin	2019-2020 Iraila	Liburutegiko arduraduna	Ordenagailua	Liburutegiko protokoloa idatzi da.
Liburutegiaren erabileraren inguruko formazioa ikasleei irakatsi	2019-2020 Urria	Liburutegiko arduraduna	Liburutegiko materiala Kartelak Txartelak	Liburutegiko arauen eta funtzionamenduaren inguruko formazioa eman zaie gela guztiei.



## 5. EGINDAKO JARDUEREN EBALUAZIOA

EREMUA				
JARDUERA	HELBURUA			
	Betetze maila	Eraginkortasuna	Alderdi positiboak	Hobetzeko proposamenak

## 6.ERANSKINAK

		0 MAILA	HASIERAKO MAILA	ERDIKO MAILA	MAILA AURRERATUA			
1.1 IRAKURTZEN IKASI	1.1.Hizkuntza arloak	Ikastetxean ez da hitz egin irakurketa-idazketa prozesuari buruz.	Hasiera eman zaio hausnarketari: irakurtzen ikasten den bitartean zelan landu idatzitako testuak. Baina ez da erabakirik hartu	X	Neurri batzuk hartu dira idatzizko testuak lantzeko, eta praktikan jarri dira.	X X X X	Adostuta dago irakurketa-idazketa prozesuarekin erlazionatuta dagoen guztia	
	1.1.2 Hizkuntzakoak ez diren arloak X?	Ikastetxean ez da adostu noiz hasi testuak irakurtzen.	Alfabetatzeari buruzko hausnarketari ekin zaio, baina ez da erabakirik hartu.		Irakurketa-idazketari buruzko irizpideak adostu dira.	X X X	Adostuta dago beste arloetan noiz hasi irakurtzen.	
	1.1.3 Eskola liburutegia	Ez da eskolako liburutegia erabiltzen, irakurtzen ikasteko programatutako jardueretarako.	X X X X	Noizean behin liburutegian irakurtzen ikasteko jarduerak egingo dira.		Liburutegia sarri erabiltzen da irakurtzen ikasteko jardueretarako		Sarri erabiltzen da liburutegia eta irakasleekiko koordinazioan.
1.2 IKASTEKO IRAKURRI	1.2.1 Curriculumeko ikasgaiak	ikastetxean, ez da hartu inolako erabakirik ikasteko irakurketaren ingurua	Ikasteko irakurketa garatzen laguntzeko gogoeta egiten hasi gara, baina ez da erabakirik hartu.	X	Ikasteko irakurketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu eta abiarazi egin ditugu.	X X X	Ikasgai guztietan, modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da ikasteko irakurketa	
	1.2.2 Hizkuntza ikasgaiak	Hizkuntza ikasgaietan, ez da ikasteko irakurketari lotutako inolako erabakirik hartu.	Ikasteko irakurketa garatzen laguntzeko gogoeta egiten hasi gara, baina ez da erabakirik hartu	X	Ikasteko irakurketa bultzatzeko erabaki batzuk hartu dira eta abiarazi egin dira	X X X	Ikastetxean lantzen diren hizkuntza guztietan modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da ikasteko irakurketa.	
	1.2.3 Eskola liburutegia - mediateka	Liburutegia ez da erabiltzen programatutako ikas jarduerarik egiteko	X X X X	Lantzean behin egiten dira liburutegian ikas jarduerak		Liburutegia sarritan erabiltzen da ikasteko jarduerak gauzatzeko, baina modu ez sistematizatuan		Liburutegia ikasteko jarduerak burutzeko erabiltzen da, irakasleekin koordinaturik.
1.3 IRAKURZALETASUNA GARATU	1.3.1 Curriculumeko ikasgaiak	Ez da planteatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerarik, hizkuntzakoak ez diren ikasgaietan	X	Irakurzaletasunari laguntzeko gogoeta egiten hasi da, baina ez da erabakirik hartu	X	Irakurzaletasunari laguntzeko erabaki batzuk hartu, eta abiarazi egin dira	X X	Ikasgai guztietan, modu koordinatuan eta sistematikoan lantzen da irakurtzeko zaletasuna
	1.3.2 Hizkuntza ikasgaiak Ingelesean ez	Hizkuntzetan, ez da planteatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerarik,		Hizkuntzetan, egiten dira zenbait jarduera, baina hizkuntzen arteko koordinaziorik gabe.	X X	Irakurzaletasunari laguntzeko erabaki batzuk hartu dira, eta hasi dira hizkuntzen arteko koordinazioa egiteko ahaleginak	X	Hizkuntzetan, koordinaturik eta modu planifikatuan, lantzen da irakurtzeko zaletasuna.
	1.3.3 Eskola liburutegia-mediateka Ingelesean ez	Liburutegia ez da erabiltzen irakurzaletasuna garatzeko helburuz programatutako jarduerarik egiteko.	X	Noizbehinka egiten dira liburutegian irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerak	X X	Liburutegia sarritan erabiltzen da irakurtzeko zaletasunari lotutako jarduerak garatzeko, baina modu ez sistematizatuan.		Liburutegia irakasleekin koordinaturik erabiltzen da.
2. FAMILIEN PARTE-HARTZEA		Irakurtzeko gaitasuna garatzeko laguntzari dagokionez, ez da lankidetzarik sustatu familiekin	Noizik behin, familiei informazioa helarazten zaie irakurtzeko gaitasuna hobetzen laguntzeko.	X X X	Modu planifikatuan eskaintzen dira irakurtzeko gaitasunari lotutako orientabideak.	X	Familiei orientabideak emateaz gain, parte hartzeko aukera ematen zaie, bai ikasgelan, bai liburutegian antolatzen diren jardueretan	
3. INGURUAREKIKO LOTURA		Ez dira kontuan hartzen inguruak eskaintzen dituen aukerak irakurketa bultzatzen laguntzeko	X	Noizik behin, kontuan hartzen dira inguruak ematen dituen aukerak irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko.	X	Inguruan dauden erakundeek eskaintzen dituzten ekimen guztietan parte hartzeko ahalegina egiten da.	X X	Inguruko jarduera eta ekimenetan parte hartzen da, eta erakundeek ikastetxean parte hartzea ere bultzatzen da
4. IRAKURKETAREN INGURUKO PRESTAKUNTZA		Azken urteotan, klastroak ez du irakurketaren inguruko prestakuntzarik jaso	Zenbait irakasle oraintsu jaso dute irakurketaren inguruko prestakuntza.		Klaustrokide batzuek parte hartu dute irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan	X X	Klaustro osoak hartu du parte irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan.	
		HH-X	LH1 ZIKLOA-X	LH2 ZIKLOA-X	LH3 ZIKLOA-X			